

Irurtzunen, bi mila eta zortziko abenduaren hogeita bian, arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkari naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi dute Jose Peinado Cuestak eta Luis Enrique de la Calle Morenok.

AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko abenduaren 2an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko abenduaren 2az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

2008 EKITALDIRAKO KARGA-TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA TASAK

2009 ekitaldirako karga-tasei, prezio publikoei eta tasei buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, 2008ko abenduaren 18an Ogasun, Industria, Langileen eta Barne Eraentza Batzordeak egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, 2009 ekitaldirako honako karga-tasak, prezio publikoak eta tasak ezartzea erabaki da aho batez; hau da, Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz:

1. Karga-tasak:

1.1. Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa: 0,1502 %

1.2. Landa-lurraren gaineko kontribuzioa: 0,800 %

1.3. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga: 3,43 %

1.4. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren indizea: 1,4

1.5. Plusbalioa handitzearen portzentajea eta plusbalioaren gaineko zergaren karga-eskala:

a) Portzentajeak: 5 urtera bitartean % 2,8; 10 urtera bitartean % 2,7; 15 urtera bitartean % 2,6; eta 20 urtera bitartean % 2,6.

b) Karga-eskala: % 17,1.

2. Ordenantzak:

2.1. Hirigintza-jarduerak bideratzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala:

Tarifen eranskina:

I. epigrafea: 0,156 euro/metro koadroko.

III. epigrafea: A) 0,400 euro/metro koadroko.

V. epigrafea: 0,199 euro/metro koadroko.

VI. Epigrafea. Eraikinen, instalazioen eta Obren gaineko Zergaren likidazioan 46,00 eurotik beherako kopurua geratzen denean, dagokion aldeagatiko tasa likidatuko da.

VII. Epigrafea.

- Eraikin eraiki berriak: 229,00 euro/etxebizitzako.

- Zaharberritzeak, handitzeak, egiturak berritzea, erabilpen aldaketak: 156,00 euro/etxebizitzako.

VIII. Epigrafea. Gutxieneko eskubideak.

- Plan Partzialak nahiz Bereziak bideratzea eta udal planeamendua aldatzea: 273,00 euro.

- Plan Partzialen nahiz Berezien aldaketak bideratzea: 273,00 euro.

- Xehetasun Azterketak bideratzea: 273,00 euro.

- Xehetasun Azterketen aldaketak bideratzea: 273,00 euro.

- Lurrak banatzeko baimenak bideratzea: 138,00 euro.

2.2. Jarduera sailkatuak eta kaltegabeak garatzeko eta jarduera eskualdatzeko baimena emateagatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifen eranskina:

I. Epigrafea.

- Ezarriko zaion tarifa 398,00 euro izanen da.

II. Epigrafea.

- Lehenengo 50 metro koadroak, metro koadro bakoitzeko: 3,97 euro.

- 51tik 100era: 3,73 euro.

- 101etik 400era: 3,11 euro.
- 401etik 1.000ra: 2,85 euro.
- 1.000tik gora: 2,28 euro.

2.3. Erabilpen publikoko lurretan zangak irekitzeagatik eta bide publikoan zoladura edo espaloiak mugitzeagatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifen eranskina:

I.1. Epigrafea: 16,20 euro/metro lineala.

I.2. Epigrafea: 17,82 euro/metro lineala.

II. Epigrafea: 16,20 euro/metro lineala.

Zangak irekitzeagatik kobratuko diren fidantzak: 40,50 euro/metro lineala.

2.4. Bide publikoko eta guztien lursailletako lurzoruaren, hegalkinen eta lurpearen aprobetxamendu bereziengatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifen eranskina:

I.1. Epigrafea: 32,40 euro (urteko).

I.2. Epigrafea:

a)

- Eguneko: 0,40 euro.

- Hileko: 8,14 euro.

- Urteko: 81,45 euro.

b)

- Eguneko: 0,21 euro.

- Hileko: 4,14 euro.

- Urteko: 40,68 euro.

I.4. Epigrafea: 1,22 euro (eguneko).

IV. Epigrafea:

- Aldamioak: 40,68 euro.

- Itxiturak: 40,68 euro.

- Beste aprobetxamendu batzuk: 40,68 euro.

2.5. Hilerriko zerbitzuak erabiltzeagatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifak:

Ehorzketak:

a) Lurperatzea: 87,50 euro.

b) Horma-hilobian: 43,70 euro.

c) Kolunbarioan: 32,80 euro.

Panteoiak:

- Lur metro koadroko: 191,20 euro.

Horma-hilobiak eta hilobiak:

a) Horma-hilobiak:

- Emakidak: 655,70 euro.
- Hamar urtez erabiltzea: 273,00 euro.
- Hamar urteko luzapena: 273,00 euro.

c) Kolunbarioak:

- Betiko lagatzea: 107,00 euro

c) Lurperatzeak:

- Hamar urtez erabiltzea: 219,00 euro.
- Hamar urteko luzapena: 219,00 euro.

2.6. Udaleko kirol-instalazioak erabiltzeagatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifak:

a) Igerilekua eta instalazio osagarriak:

- Urteko kuota, 5 urtera bitartean: 0 euro.
- Urteko kuota, 14 urtera bitartean: 49,30 euro.
- Urteko kuota, 14 urtetik 18ra bitartean: 59,00 euro.
- Urteko kuota, 18 urtetik 65ra bitartean: 79,30 euro.
- Urteko kuota, 65 urtez gorakoentzat (Irurtzunen edo Arakilen erroldatuak): 0 euro.
- Sarrera 14 urtez beherako gazteentzat: 3,20 euro.
- Sarrera 14 urtez gorakoentzat: 5,40 euro.
- Sarrera 65 urtez gorakoentzat (Irurtzunen edo Arakilen erroldatuta ez daudenak): 2,10 euro.
- 15 eguneko bonua, 14 urtez beherako gazteentzat: 21,40 euro.
- 15 eguneko bonua, 14 urtetik 65era bitartekoentzat: 32,10 euro.
- 15 eguneko bonua, 65 urtez gorakoentzat: 15,50 euro.
- 15 eguneko bonua 65 urtez gorakoentzat (Irurtzunen edo Arakilen erroldatuta ez daudenak): 15,50 euro.

b) Polikiroldegia:

- Tarifa bakarra: 17,10 euro/orduko argiarekin, eta 12,90 euro argirik gabe.

c) Pilotaleku estalia:

- Tarifa bakarra 17 argirekin: 8,30 euro/orduko.
- Gainerakoetan tarifa bakarra: 4,10 euro/orduko.

d) Ikastetxeko lokalak eta instalazioak:

- Gela bakoitzeko tarifa: 4,10 euro/orduko.
- Jangelaren tarifa: 10,40 euro/orduko.

Irabazi asmorik gabeko kultur ekitaldietarako baldin bada, tarifa 2,60 eurokoa izango da, gela bakoitzeko eta eguneko.

2.7. Udal Musika Eskolara joateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

6. art.- Kuotak:

- Irurtzungo ikasleek: 33,40 euro irakasgai bakoitzeko eta hileko.

- Irurtzungo ikasleek, baldin eta familia ugariko edo familia bereko bigarren kide badira: 16,70 euro irakasgai bakoitzeko eta hileko.

- Beste udalerrietako ikasleek: 57,00 euro irakasgai bakoitzeko eta hileko.

- Irakasle-ikasleek: 28,60 euro irakasgai bakoitzeko eta hileko.

2.8. Udal ludotekara joateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

6. art.- Kuotak: 21,40 euro hileko.

- Familia bereko bigarren kide erabiltzaileek: 10,70 euro.

- Familia bereko hirugarren kide erabiltzaileek: 5,35 euro.

- Gaztelaniazko saioretara ere joaten diren euskarazko saioretako erabiltzaileek: 10,70 euro.

2.9. Eskola-garraioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

5. art.- Kuotak: 559,00 euro.

2.10. Kultur Etxeko auditorioan antolatzen diren kultur ekintzetara joateagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

4. art.- 14 urtez beherakoek 1,00 euro ordaindu beharko dute, eta 14 urtez gorakoek, berriz, 3,00 euro.

2.11. Ur-horniduragatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

Tarifak:

1. Etxerako kontsumoa:

- Lau hileko gutxienekoa: 5,77 euro.

- 0,481 euro/metro kubikoko eta lau hileko, gehienez ere 200 metro kubikora bitartean.

- 0,600 euro/metro kubikoko eta lauhileko, 200 metro kubikotik aitzin.

2. Industriadako kontsumoa:

- Lau hileko gutxienekoa: 8,70 euro.

- 0,725 euro/metro kubikoko eta lau hileko, gehienez ere 400 metro kubikora bitartean.

- 0,948 euro/metro kubikoko eta hileko, 400dik 5.333 metro kubikora bitartean.

- 1,152 euro/metro kubikoko eta lauhileko, 5.333 metro kubikotik aitzin.

2.12. Merkataritza ez sedentarioa "Azoka txikia" arautzen duen Ordenantza.

Tarifen eranskina:

- 4 metrora bitarteko postuek eta hiru hileko: 75,00 euro.

- 4 metrotik 6ra bitarteko postuek eta hiru hileko: 117,00 euro.

- 6 metrotik 8ra bitarteko postuek eta hiru hileko: 168,00 euro.

- 8 metrotik 10ra bitarteko postuek eta hiru hileko: 207,00 euro.

Puntu hau onartu aitzin, udalburuak esan du tasak % 3,5 igo direla, plusbalioagatiko zergari dagokiona izan ezik; horrek ez du aldaketarik izan.

UDAL PLANA UC-2 UNITATEAN ALDATZEA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Udal Planeko UC-2 Unitatea aldatzeko proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko abenduaren 22an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez, alegia Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz: Udal Planeko UC-2 Unitatea aldatzeko proiektua, Fernando Andion Carbelledak sustatua, hasiera batean onartzea.

Erabakia onartu aitzin argitu da aldaketak Aldapa kaleko 12. zenbakia duen eraikinari eraginen diola, eta aldaketaren xedea igogailu bat paratzea dela, traba arkitektoniko guztiak ezabatze aldera.

2008ko AURREKONTUKO ALDAKETAK HASIERA BATEAN ONARTZEA

2008ko Aurrekontua puntu batean aldatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko abenduaren 18an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, 2008ko Aurrekontuan ondoren aipatzen den aldaketa hasiera batean onartzea erabaki da aho batez:

- 432.789 “S1-U.8 urbanizazioko kuotak” ezohiko kreditua 876,07 euroekin gaitzea, eta kopuru berean, hau da 876,07 euroan, murriztuko den Poltsa Lotesle Juridikoan dagoen soberakinarekin finantzatzea.

KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Kirol-arloan diru-laguntzak emateko alkatetzaren proposamena. Kirol Batzordeak, 2008ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, gutxieneko partaide-kopurua ez zegoelako afera honi buruzko irizpena

ematerik izan ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Honako hau proposatzen da: ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea 2008ko Aurrekontuko 4523.2270901 kontu-sailaren kargura:

- 425,00 euro Iratxo SCDR-ri, botxa-txapelketa antolatzeagatik.
- 1.100,00 euro Guan taldeari, areto-futboleko 12+12 orduko txapelketa antolatzeagatik.
- 500,00 euro Sakanako Herri Kirolen Egunaren antolatzaileei.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

- 1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.
- 2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, AJAren (Antolakuntza eta Jarduera Araudia) 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

GIZARTE ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Gizarte-arloan diru-laguntzak emateko alkatetzaren proposamena. Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko abenduaren 18an egindako bilkuran afera hau, akats bat tarteko, aztergaien artean sartu ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea:

Proposatzen den akordioa ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea da:

- 187,00 euro Itxipuru Taldeari, Atakondoa Ikastetxean garatuko den ingurumen-hezkuntzako programarako, 2008ko Aurrekontuko 432.2270702 kontu-sailaren kargura.
- 2.000,00 euro Aisialdia taldeari, hurrei zuzendutako aisialdi-proiekturako, 2008ko Aurrekontuko 469.2270707 kontu-sailaren kargura.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, AJAren (Antolakuntza eta Jarduera Araudia) 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Puntu honetan, Iriarte jaunak honako idazki hau irakurri du:

“ETAk Inazio Uria hil izana dela-eta, Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldeak gaitzespena eta arbuioa adierazi nahi ditu.

Ezin da inolaz ere indarkeriaren erabilera justifikatu helburu politikoak lortzeko. Ezin

da onartu giza eskubideen urraketarik aldarrikapen politikoen aitzakian.

Euskal gizartea bakea eskatzen ari da, eta ETAk eskaera horri erantzun behar dio berehala.

Armak alde batera uzteak alde bakarrekoa izan behar du.

ETA ezin da Euskal Herriak nahi duenaren gainetik egon.

Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldeak atxilotuen eskubideak urratzea ere salatzen du. Atxilotuek salatutako torturak aintzat hartu behar dira, eta ezinbestekoa eta premiazkoa da:

1.- Polizia-etxeetan kamerak paratzea.

2.- Zigorgabetasun-guneak sortzen dituen inkomunikazio-egoera indargabetzea.

3.- Terrorismoaren aurkako legea indargabetzea; izan ere, lege horrek aukera ematen du pertsonak inolako defentsarik gabe egotea atxilotzen duten unetik agintari judizialarengana eramaten duten arte.

Zuzenbide Estatua zuzenbide-estatu izan daiteke soilik pertsona guztien eskubideak, eta eskubide horiek gizarte-arlo guztietan errespetatzen baditu.”

Irakurketa amaituta, Murugarren jaunak aipatu du azken osoko bilkuratik hona hainbat emakume hil dituztela genero-indarkeriaren ondorioz, eta bere iritziz hori salatu beharra dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak eta berrogeita hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.